

erran la zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA  
TEKNIKO  
A  
ESCUELA  
TÉCNICA SUPERIOR  
DE ARQUITECTURA



# ARKITEKTURA MASTERRA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Gaur egun, eta indarrean dagoen arau esparruaren baitan, arkitekto gaituek bakarrik idatzi, sinatu eta eraiki ditzakete arkitekturarekin eta hirigintzarekin lotutako proiektuen zati handi bat. UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoa da konpetentzia eta gaitasun profesional horiek lortzeko aukera ematen duen Arkitekturako Gaikuntza Masterra ezartzen duen ikastegi publiko bakarra.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek ez ezik kanpokoek ere izango dute lekua bertan; izan ere, goi arkitekturako ikastegi publikoen egungo banaketa kontuan hartuta, bere eragin esparrua Nafarroa, Kantabria, Asturias, Errioxa, Gaztela eta Leongo zati batera eta Ipar Euskal Herrira ere hedatzen baita.

Gure ikastegiak arlo profesional honetan duen prestakuntza eta esperientzia zabala kontuan hartuta -hain zuzen ere, 1977tik ari baita goi mailako arkitektoak titulatzen- ondo ezagutzen dugu gure inguruan titulazio honetan dagoen eskaera. Beraz, Gaikuntza Master hau gizartean dagoen arkitekto gaituen eskaerari erantzuteko diseinatu eta dimentsionatu da.

---

## SARTZEKO ESKAKIZUNAK

---

Arkitekturaren Oinarrietako Gradua edo sarbiderako baldintza den beste bat, kontuan hartuz EDU/2075/2010 Agindua, uztailaren 29koa.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Izaera gero eta diziplina anitzekoagoa duten arkitektura eta ingeniariartza bulegoetan, eraikingintza eta arkitektura/hirigintza diseinuaren munduarekin lotura duten arlo guztietan, alor pribatuan zein publikoan: obra berria, birgaitzea, interiorismoa, energia-eraginkortasuna, hirigintza planak, herritarren parte-hartze prozesuak, paisajismoa, eta abar. Parte-hartze aktiboa sormenarekin harremana duten arloetan, besteak beste, diseinu grafikoan, modan, eszenografian, bideo-jokoen 3D diseinua, erakusketa/ekitaldien muntaia eta antolaketa, eta abar. Irakaskuntza hainbat alorretan (batxilergotik unibertsitate arlora), ikerketa graduondoko ikastaroetan, doktoretza programetan, arkitektura, hirigintza, artea eta historiarekin zerikusia duten artikulua eta argitalpenekin. Masterrak arkitekto eta arkitekta lanbide arautuan jarduteko gaikuntza ematen du.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:**  
**Irakaskuntza mota:**  
**Hizkuntza:**  
**Gutxi gorabeherako prezioa:**  
**Egutegia:**

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (Donostia).  
Eskolan bertakoa.  
Gaztelania, euskara.  
1.600-1.800 €.  
Urritik irailera, goiz eta arratsalde.

---

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

---

60 ECTS / Ikasturte bat

|                                        |                             |                                             |                            |
|----------------------------------------|-----------------------------|---------------------------------------------|----------------------------|
| Nahitaezko<br>Gaiak<br>21 kreditu ECTS | Practicum<br>9 kreditu ECTS | Master Amaierako<br>Lana<br>30 kreditu ECTS | Guztira<br>60 kreditu ECTS |
|----------------------------------------|-----------------------------|---------------------------------------------|----------------------------|

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

Nahitaezkoak: euskara /gaztelania

- Practicum (9 ECTS)
- Proiektuaren garapena (12 ECTS)
- Garapen teknikoa (9 ECTS)
- Master Amaierako Lana (30 ECTS)

---

## HARREMANETARAKO

---

**Arduradunak:**

Juan José Arrizabalaga Echeberria

**e-maila:** juanjose.arrizabalaga@ehu.eus

**Masterreko idazkaria:**

**Helbidea:** Oñati Plaza, 2. 20018 Donostia

**e-maila:** masterarquitectura.etsass@ehu.eus

---

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA BABESLEAK

---

